



FORU DEKRETUA

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saila
Zerga Araudiaren Zerbitzua
Esp. zk.: 92/2018

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegiko aldaketa.

Foru Dekretu honek zenbait aldaketa sartzen ditu pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegian.

Orain, arautegi horretan egindako aldaketak labur azalduko dira.

Arabako zerga sistemako zenbait arau eta zerga aldatzeko martxoaren 7ko 2/2018 Foru Arauak sartutako aldaketen ondorioz, pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga arautzen duen Foru Arauko 56.bis artikuluan jasotzen den lekualdatutako langileen araubide bereziari dagokionez, utzitako langileak bereziki prestatuta dauden langile gisa hartzen diren kasuak zehazten dira. Horrez gain, aplikatzeko ikerketa eta garapen arloko jarduerak, jarduera zientifiko, tekniko edo finantzarioak ezartzen dira. Bestalde, araubide berari dagokionez, lekualdaketa onorioz, eskubidea edo kerkaria sortzen dituzten gastuak zein diren zehazten dira.

Era berean, aipatutako araubide bereziak aukeran duen zerga-araubidearekin lotutako aldaketa tekniko bat sartzen da.

Azkenik, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegiko edukia, Ekonomia Itunak, abenduaren 28ko 10/2017 Legea, Euskal Autonomia Erkidegoan maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onartutako Ekonomia Ituna aldatzen duena, onartu eta gero duen eduki berrira egokitzeko xedez, bi aldaketa barne hartzen dira. Alde batetik, Araban emandako lan edo zerbitzuetatik etorritako konturako atxikipenei eta sarrerei dagokienez, kontrakoa frogatu ezean, lanak Araban emandakotzat hartzen ziren langileak lan egiten zuen lantokia lurralde horretan bazegoen; orain, "iuris et de iure" presuntzioa kontuan hartzen da. Presuntzio bera aplikatuko da hemendik aurrera telelanaren eta lanak edo zerbitzuak atzerrian, ontzietan, ontzi-artefaktuetan edo itsasoko plataforma finkoetan ematen badira. Bestetik, ordainsa aktibo nahiz pasiboekin zerikusia duten atxikipenen kasuan, Estatuko Administrazioak hartzailea ez den pertsonari ordaindutako pentsioak barne, araubide orokorrak jarraitzen dituen kasuak handitzen dira.

Zerga Araudiaren Zerbitzuak eta Aholku Batzordeak horri buruz emandako txostenak ikusi dira.

Horregatik, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, eta Foru Gobernuaren Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT



Artikulu bakarria. Pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren arautegia, Foru Aldundiaren 40/2014 Foru Dekretu bidez abuztuaren 1ean onartutakoa.

Abuztuaren 1eko 40/2014 Foru Dekretua, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren Arautegia onartzen duena, aldatu egin da; hona aldaketak:

Bat. I. Titulua aldatu da eta honela geratu da:

"I. TITULUA. LEKUALDATUTAKO LANGILEEN ARAUBIDE BEREZIA"

Bi. 1. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

"1. artikulua. Lekualdatutako langileen araubide bereziaren edukia.

1. Zergaren Foru Arauko 56.bis.1.a). artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, bereziki kalifikatutako lantzat hartuko dira Gizarte Segurantzako Araubide orokorreko 1. kotizazio-taldean dagoen kategoria profesionaleko langileek egindakoak, indarreko arautegiak xede horretarako ezarritakoaren arabera. Lan kalifikatu horiek, hurrengo atalean jasotzen diren jarduerekin zuzenean eta nagusiki lotuta egon beharko dute.

2. Ikerketa eta garapen jardueratzat, jarduera zientifiko, tekniko edo finantzariotzat hartuko dira garatu ostean zergaren Foru Arauko 56.bis. artikuluan ezarritako araubide berezia aplikatzeko eskubidea ematen dutenak. Hauek dira:

a) Sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 62.2. artikuluan ezarritakora egokitzen diren ikerketa eta garapen jarduerak.

b) Orain zerrendatuko diren jarduera zientifiko eta teknikoak:

1. Sozietateen gaineko zergaren 37/2013 Foru Arauko 63.2. artikuluan ezarritakora egokitzen direnak.

2. Garapen iraunkorraren eta ingurumenaren babes eta hobekuntzaren esparruaren barruan daudenak, helburu gisa, sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 65.2.b). artikulua a) eta e) letretan adierazitakoetako bat dutenak.

3. Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 Arautegiko (EB) 2.80.a). artikuluan ezarritako baldintzak (atal horretan adierazitako produktu, zerbitzu eta prozesuen garapenarekin zerikusia dutenak) betetzeagatik "Enpresa berritzailetzat" hartzen diren erakundeetarako ematen direnak.

4. Enpresak sustatzeko eta sozietateen gaineko zergaren abenduaren 13ko 37/2013 Foru Arauko 53.2. artikulua c) letran aipatzen den ekoizpen-jarduera indartzeko helburua betetzen duten erakundeei ematen zaizkienak.

Bereziki, helburu hori betetzen duten enpresatzat hartuko dira enpresa proiektu garrantzitsuak egiten dituztenak, jarduera, produktu edo merkatu berriak garatzea, dauden batzuk handitzea edo finkatzea edo enplegu egonkorrak ekartzen badituzte.



Xede horietarako, enpresak sustatzeko eta jarduerak ekartzen duen ekoizpen jarduera indartzeko helburua betetzen duela egiaztatu beharko du langileak zerbitzuak ematen dituen erakundeak.

5. Enpresa proiektu berri bat garatzeko hasierako etapan edo garapen fasean dauden erakundeetarako ematen direnak, betiere hazteko ahalmen handia duten mikroenpresak eta enpresa txiki eta ertainak badira.

c) Finantza arloko jarduerak. Finantza-erakundeetarako emandako lanak edo erakunde guztietarako emandako finantza arloko lanak barne hartuko dira, betiere bi kasuetan, erakunde horiek, iraunkortasunari edo finantzarioa ez den kudeaketa egoerari buruzko txosten bat argitaratu badute, eta txosten hori aditu independente batek egiaztatu badu.

Informazio hori ematen dutenean, erakundeek esparru nazionaletan, Europar Batasuneko esparruetan edo nazioarteko esparruetan oinarritu beharko dute, hala nola Nazio Batuen Mundu Ituna; Nazio Batuen esparruak, «babesteko, errespetatzeko eta zuzentzeko», abian jartzen dituen enpresa eta giza eskubideei buruzko printzipio gidariak; enpresa multinazionalentzako Ekonomia Lankidetzaren eta Garapenerako Antolakundearen (ELGA) zuzentarau lerroak; Normalizazioaren Nazioarteko Erakundearen 26000 ISO araua; enpresa multinazionalen eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen gizarte politikari buruzko hiru alderdiko aitortpena; GRIren (GRI Sustainability Reporting Standards) Iraunkortasun Txostenak Aurkezteko Munduko Ekimena, edo ezagunak diren nazioarteko beste esparru batzuk.

3. Zergaren Foru Arauko 56.bis.2.b). artikuluan ezarritakoaren ondorioetarako, lekualdaketa-ondorioz sortutako gastu kengarritzat hartuko dira honako hauek:

a) Zergaduna eta bere familia unitateko kideak Araban finkatzeko beharrezkoak diren bidaia eta etxe-aldaketako garraio gastuak. Barne hartuko dira jatorrizko herrialdera egindako bidaia gastuak ere bai. Urtean, gehienez, bi bidaia egin ahalko dira. Hori horrela, zenbateko kengarria izango da aipatutako jatorrizko herrialdetik Arabara joateko erabiliko garraioaren prezioa.

b) Zergadunaren ondorengoak Arabako eskolatzeko gastuak, zergaren Foru Arauko 79. artikuluan ezarritako kenkaria aplikatzeko eskubidea emango diotenak.

c) Zergadunak edo bere familia unitateko beste kideren batek egindako euskara edo gaztelania ikastaroen gastuak.

d) Zergadunak Araban duen ohiko etxebizitza alokatzeagatik gastuak, eta harekin lotutako zerbitzuak edo hornidurak kontratatzeagatik gastuak".

Hiru. Edukirik gabe utziko dira 2., 3., 4., 5. eta 6. artikulukoak.

Lau. Aldatu egiten da 74. artikuluko lehen gidoia, eta honela idatzita geratzen da:

"- Aipatutako 105. artikuluko a), d), e), f), g) eta h). letretan adierazten diren aukerak, zergaren Foru Arauko 56.bis. artikuluan jasotzen diren lekualdatutako langileen araubide berezia aplikatzeagatik sortzen den aukera, zerga autolikidatzeko borondatezko aldia amaitu arte, edo zerga administrazioak behin behinean likidatu arte, aurretik egin bada".

Bost. Aldatu egiten da 75. artikuluko 2. ataleko a) letra, eta honela idatzita geratzen da:



"a) Araban egindako lan edo zerbitzuetatik datozen etekinak.

Lanak edo zerbitzuak lurralde erkidean eta Araban, edo Araban eta beste edozein lurralde historikotan egiten badira, edo lanak edo zerbitzuak zer lekutan egin ezin bada ezarri, lanak edo zerbitzuak Araban ematen direla hartuko da langilea atxikita dagoen lantokia lurralde horretan badago.

Bidenabar, telelanaren kasuan, eta zerbitzu eta lanak atzerrian eginez gero, edo itsasontzietan, ontzietan, itsas gailuetan edo itsasoan finkatutako plataforma finkoetan, Araban eman direla ulertuko da, langileari atxikitako lan zentroa lurralde horretan badago.

sei. 75. artikuluko 3. idatz zatia aldatzen da eta honela geratzen da:

“3. Arabako Foru Aldundiari ez dagokio honako hauen atxikipenak egitea: ordainsari aktibo nahiz pasiboak, hartzailea ez den pertsonak sortutako pentsioak barne, Estatuko administrazioak funtzionarioei eta lan kontratuko edo administrazio araubidean dauden langileei ordaindutakoak, funtzionarioak eta erakunde autonomoen eta enpresa erakunde publikoen, Estatuko merkataritza sozietateen, estatu atxikipena duten partzuergoen, estatu fundazioen, transferitu gabeko unibertsitate publikoen eta euskal lurraldean dauden portuetako portu agintarien langileak izan ezik”.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Arauak emateko gaikuntza.

Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuari baimena eman zaio foru dekretu hau garatzeko eta aplikatzeko beharrezko diren xedapen guztiak emateko.

Bigarrena. Indarrean jartzea.

Foru Dekretu hau, ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean, eta 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu eraginak, Bost eta Sei ataletan ezarritakoa izan ezik, 2017ko abenduaren 30ean hasiko direlako.

Bereziki, lekualdatutako langileen araubide bereziari buruzko arautegia 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera formalizatutako kontratuak dituzten pertsonen aplikatuko zaie, eta pertsona fisikoen errentaren gaineko zergaren autolikidazioa aurkezteko unean aplikatu ahalko da.

Vitoria-Gasteiz.

Ramiro González Vicente
Diputatu nagusia

José Luis Cimiano Ruiz
Ogasun, Finantza eta Aurrekontu



Diputado General

Saileko foru diputatua
Diputado Foral de Hacienda, Finanzas y
Presupuestos

Teresa Viguri Martínez

Ogasun zuzendaria
Directora de Hacienda